


EAEko 16 eta 24 urte bitarteko hamar gaztetatik sei elebidunak dira

Euskararen ezagutzaren eta erabileraren ehunekoek duela hogeit hamar urtekoak bikoiztu egin dituzte gazteen artean

EAEko 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 59,7 elebidunak dira (ondo hitz egiten dute euskaraz zein gaztelaniaz), % 23,2 elebidun hartzaitzat jo ditzakegu (hau da, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzte, baina ulertu, ondo ulertzen dute) eta gainontzeko % 17 erdaldunak dira (ez dakite euskaraz hitz egiten).

Hori dio Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2011n egindako [V. Inkesta Soziolinguistikoak](#).

[Aurreko lau inkestak](#) kontuan hartuz gero, ikus dezakegu gazte elebidunen ehunekoak goranzko joera izan duela EAEn azken hogeit hamar urteotan.



Hori da hizkuntza-gaitasunari dagokiona, baina jarraian euskararen erabilerari erreparatuko diogu.

Adin tarte horretako gazte guztien % 26,8k euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dute. Ehuneko hori ere nabarmen handitu da azken urteetan, 1991n % 12,4koa baitzen eta, 2001ean, % 18,9koa.

Baina horren arrazoia hau da: hogeit hamar urte horietan nabarmen handitu dela euskararen ezagutza, ikusi dugunez, eta horrek euskara gehiago erabili ahal izateko bidea ematen duela.

Horregatik, gazteria osoari dagozkion datuak ez ezik, elebidunei bakarrik dagozkienak ere aztertuko ditugu. Hartara, zera ikus dezakegu: gazte elebidunen % 44,8k euskara gaztelania adina edo gehiago erabiltzen dutela. Ehuneko horrek ez du joera linealik izan: jaitsi egin da 1991tik (% 48,4) baina igo egin da 2001eko datuekin alderatuz gero (% 38,4).

Hau da, gazte guztien artean euskararen erabilera handitu da, baina, elebidunak bakarrik kontuan hartuta, antzematen da horien erabilera ez dela handitu.

Dena dela, gure gizartean gaztelaniak duen nagusitasuna ikusita, ez da makala erabileran, euskara gaztelaniaren aurrean edo, gutxienez, gaztelaniaren parean jartzen duten gazteen ehuneko hori.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

